

**me
mo
ria**

2017

**garabide
bidagara**

aurkibidea

Sarrera	3
Ikastaldi Trinkoa I	4
Eskolak	5
Ikastaldi amaierako proiektuak	7
Euskalgintzako entitateetara bisitak	8
Sentsibilizazio ekintzak	9
Bidaideak 2017	11
Kaxubiar komunitatea (Polonia)	11
Kitxua komunitatea (Ekuador)	12
Maia Kaqchikel komunitatea (Guatemala)	13
Maputxe komunitatea (Txile)	14
Nahuatl komunitatea (Mexiko)	15
Nasa komunitatea (Kolonbia)	16
Yukatango Maia komunitatea (Mexiko)	17
GARABIDEn sendotzea	18
Komunikabideetan oihartzuna	19
GARABIDEn komunikazio-bide propioak	19
Kanpo komunikabideak	21
Balantze ekonomikoa	23
Babesleak eta laguntzaileak	24
Erakunde babesleak	25
Erakunde laguntzaileak	26

Honakoak dira 2017ko jardunari dagokionez azpimarratu nahi ditugun puntuak:

- **“Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari Buruzko Ikastaldi Trinkoa I” edo, bertsio laburtuan, “Ikastaldi Trinkoa”.**

Soziolingustika Klusterrarekin batera eta Eusko Jaurlaritzaren Garapen Agentziarekin egindako hitzarmenari esker, Ikastaldi Trinkoa izan da erronka berria eta 2017. urtean esku artean izan dugun **egitasmu nagusia**. Hizkuntzak biziberritzeko gidaritzan formazio intentsiboa izan da, **140 ordukoa**, jatorrizko hizkuntzak biziberritzeko estrategia orokorretan zentratua **eta 9 hizkuntza komunitateetan gidaritza profila duten 12 eragileei zuzendua**.

Ikastaldi Trinkoak bukatu eta, beherala, izan du **emaitza praktikorik** komunitate baten baino gehiagotan. 2018ko hainbat Bidaide Ikastaldi Trinkoko proiektuetatik aterako dira.

Memoriaren 2. puntuan jasotzen da Ikastaldi Trinkoaren informazio zehatza.

Sarrera honetan ekimen horrek izan duen **arrakasta azpimarratu nahi dugu**.

- **“Bidaideak”:**

Urteroko Bidaide programari jarraituz, **Ekuador, Guatemala, Mexiko (2), Polonia, Kolonia** eta **Txilen** ere jarraipena eman diegu hizkuntza lankidetzara proiektuei.

- **Komunikazioa areagotzea.**

Komunikazioari dagokionez barne eta kanpo bitartekoak erabiliz **egindako ahaleginak emaitzak eman ditu**. Jaso ditugun datuen arabera, **59 komunikabidetan** eman da GARABIDEren berri eta **95 agerpen** izan dira guztira.

- **Garabide sendotzea**, honen baitan azpimarratu:

– **Udal eta enpresa sarea** elikatzen jarraitu dugu, ahalegina, batez ere udaletan egin da, lurraldetasuna zainduz, eta izan da emaitzik. 2017an Garabide babesten duten **entitate berriak** hauek dira: Barañaingo, Berako eta Beasaingo udalak eta Borzirietako Mankomunitatea.

– **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** ohiko diru-laguntzen deialdian lortu da Kolonbiako Caucan “Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Diplomatura Nasa Komunitatean Aplikatuta” ikastaroa egin ahal izatea.

– **2018an Aritu Ikastaroa**, Garapen Agentziak kaleratutako deialdian parte hartu du Garabidek eta guretzat horren garrantzitsua den ikastarorako finantzazioa lortu da.

– **GARABIDEren egitura sendotzeko urratsak egin dira.**

Memoria honetan ikus daitekeen bezala, **uzta oparoa utzi digu**, beraz, 2017ko urte honek. Lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu **gure babesle eta laguntzaile guztiei emandako laguntza zinez eskertzeko**. Izan ere, babes eta laguntza horiek gabe ezinezkoa litzateke Garabideren beraren eta bere jardueren garapena.

Besterik gabe, irrikaz gaude 2018ak emango duena jaso eta berriz ere zuekin konpartitzeko.

Ikastaldi trinkoa I

2017ko urriaren 1etik 30ra bitartean garatu da aurtengo proiektu berri eta nagusia: Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari Buruzko Ikastaldi Trinkoa. Lehena izan den edizio honetan, **9 hizkuntza komunitatetako 12 kide izan dira gurekin**: Kitxua (Ekuador), Quechua (Peru), Nasa (Kolonbia), Kaqchikel (Guatemala), Nahuatl (Mexico), Yukatango maia (Mexico), Amazigh (Maroko) eta Maputxeak (Txile). 12 pertsona horiek hilabete bat iragan dute Euskal Herrian Garabidek Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlanean eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantzazioarekin antolatu duen ikastaro honetan.

Elkar ezagutza eta trukea izanez tarteko, **euskararen biziberritzean azken 50 urteetan egin diren urratsak hizkuntza egoera gutxitu batean daukaten komunitateei transmititzea izan da** ikastaroaren helburu nagusietako bat.

Lau aste hauetan, hizkuntzen biziberritzearen inguruko formakuntza teorikoa jasotzeaz gain, euskalgintzako hainbat erakundek ateak zabaldu dizkigute, ekimenak bertatik bertara ezagutzeko. Gisa horretan, egonaldia beste xede garrantzitsu bat gauzatu da; munduko beste hizkuntza komunitate gutxitu batzuen egoera eta identitate, kultura eta hizkuntza biziberritze prozesuak ezagutaraztea, euskal jendartean eragiteko. Horren lekuko izan dira Ikastaldi Trinkora etorritako eragileak eta Euskal Herrian zehar eskainitako hitzaldiak.



Biriaturako ikastolako eta Garabideko ordezkariak Biriatura egindako bisitan.

ESKOLAK

Aretxabaletan, Bagara kooperatibaren egoitzan, eman dira Ikastaldi Trinkoko klaseak –**140 ordu guztira**– eta hizkuntza biziberritzeko estrategien inguruko ardatz ezberdinak landu dira. Hizkuntza ekologiaz eta soziolinguistikaz oinarriak jaso ondoren, estrategia konkretuak ikusi dira: korpusaren osaketa, hezkuntza, hedabideak, ekoizpen kulturala eta hizkuntza plangintza, besteak beste.



140 orduko ikastaroa jaso dute 12 partaideek.



Bilboko udaletxean bisitan izan gara.

Ikastaldiko gaiak eta irakasleak honakoak izan dira:

Sarrera:

– Andoni Barreña, Maialen Sobrino eta Jon Sarasua - Garabide.

1 Moduloa: **“Hizkuntzen biziberritzea, hurbilketa teorikoa”**

– Julen Arexolaleiba – HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea

– Belen Uranga – Soziolinguistika Klusterra

– Andoni Barreña eta Jon Sarasua – Garabide

2 Moduloa: **“Euskararen biziberritze prozesuaren gakoak”**

- Amaia Antero, Iñaki Gonzalez – Arizmendi Ikastola
- Mari Paz Martin, Jon Antxia – Beasaingo Udal Euskaltegia
- Ane Barandiaran – Beasaingo Udaleko euskara teknikaria
- Igone Bastarrika – Emun
- Xabier Monasterio – Zenbat Gara
- Iban Arantzabal – Goiena
- Pantxika Maitia – Kanaldude
- Martxelo Otamendi – Berria
- Eneko Barberena – Txatxilipurdi
- Xan Aire – Seaska
- Mikel Mendizabal-Unesco Katedra eta Garabide
- Garaziko Gaztetxea
- Julene Maia – Urtxintxa
- Kepa Sarasola – Ixa Taldea
- Ane Pedruzo – Oihaneder Euskararen Etxea
- Amaia Elorza – Geu Gasteiz
- Manuel Moreno – Topagunea-Araba
- Mikel Etxaburu – idazlea eta HUHEZIKo irakaslea
- Jon Sarasua eta Andoni Barreña – Garabide

3 Moduloa: **“Hizkuntza Politika eta hizkuntza plangintza”**

- Miren Dobaran, Estibaliz Alkorta – HPS
- Joseba Erkizia, Gotzon Egia, Fernando San Martin – GFA
- Alba Fatuarte (zinegotzia), Mari Jose Arrieta Sagarna (Euskarako zuzendariordea)
- Bilboko Udala

4 Moduloa: **“Eragileak: herrigintza, erakunde publikoak eta legegintza”**

- Patxi Baztarrika- euskara teknikaria
- Jasone Mendizabal – Topagunea
- Aizpea Otaegi – Elhuyar

5 Moduloa: **“Hegoaldeko hizkuntzen diagnostikoa, erronkak eta praktika onak”**

- Diego Yatacue – Kolonbiako nasa komunitatea
- Paula Huenumilla- Wallmapuko maputxe komunitatea
- Leonardo Duran- Mexikoko nahuatl komunitatea
- Victoria Esquit- Guatemalako kaqchikel komunitatea
- Txerra Rodriguez (Emun) – Zeelanda Berriko esperientzia (Maori komunitatea)

6 Moduloa: **“Biziberritze estrategien diseinua”**

- Jon Sarasua – Garabide

IKASTALDIKO AMAIERAKO PROIEKTUAK

Ikastaldi Trinkoaren helburua beraien errealitatean hizkuntza eta kulturaren eremuan modu eraginkorrean eragingo duten pertsonak prestatzea izanik, formazioa jasotzeaz gain, **beraien komunitateetan aplikatzeko proiektu bat erabaki** dute parte hartzaile guztiek. **11 proiektu aurkeztu** dira eta, **aurrerantzean, aukeratutako proiektuen jarraipena egingo da**, batzuei on-line eta beste batzuei tokian tokiko segimendua eginez. Honakoak dira parte-hartzaileek diseinatutako proiektuak:

Guarani hizkuntza biziberritzeko estrategiak zehaztu: konprometituta dauden instituzio eta pertsonak identifikatu, buruzagi gazteei formazioa eman...	Benjamin Cuellar Fernandez
Irratian Yucatan estatutik kanpoko eragileak erakarri. Kontseilu bat sortu berrindartze plana garatzeko.	María Elisa Chavarrea
Lan-talde bat indarrean jartzea Ikastaldi Trinkoan ikasitakoaren zabalpena egin ondoren. Rif mailan lana egin, arazoa idazketa mailakoa izanik, "Atik ABra" pasatzeko estrategiak finkatu.	Milouda El Hankari El Bouzidi
Nahualth-aren diagnostiko linguistiko osoa egin. Ondoren, diagnostikoaren emaitzekin Cuetzalaneko 168 komunitateei eragingo dien ekintzak modu egokian bideratu.	Lizbeth Georgina Sánchez Ortiz
Eskolaren instituzionalizazioa eta material pedagogikoa hobetzea. Tosepan kooperatiban hizkuntza planari ekitea.	Leonardo Durán Olguin
"Euskara ikasteko liburuan" oinarrituz mapuzungun hizkuntza ikasteko plana diseinatzea. Entitatearen barne funtzionamendua mapuzungunez izatea.	Paula Onesima Huenumilla Herrera
Nekazal eremuan heziketa berritzaileari ekin murgilketa programa batekin. Garabideko ikastaroetara joandako kitxuekin sare bat osatzea.	Paolina Mercedes Vercoutere Morales
Barnera eta kanpora begirako planifikazioari ekin eremu instituzionalean gauzak egin: ordenantzak, dokumentu administratiboak...	José Quimbo Amaguaña
Landa eremuetako irakasle eta zuzendariak quechua hizkuntzan trebatu.	Carmen Gladis Allosilla Morales
Helduen (kultur ekoizpena eta corpora) eta haurren formazioa.	Victoria Esquit Choy
Bien artean "Toribioko Hizkuntza Plana" martxan jartzea. Honako arlo hauek izango dituzte kontuan: alfabetatzea, corpora, ekoizpen kulturala, hedabideak eta lehen mailako hezkuntza	Diego Fernando Yatacue Ortega + Adolfo Vitonas Ramos

EUSKALGINTZAKO ENTITATEETARA BISITAK

Euskalgintzako hainbat esperientzia bertatik bertara ezagutzeko parada izan dugu Ikastaldi Trinko osoan zehar. Zubigintza lan horretan, **harrera beroa** egin zaigu toki guztietan. Hizkuntzen biziberritzeko estrategien partekatzeak hainbat gogoeta interesgarriren bideak marraztu ditu gainera.

Ikastaldiak iraun duen 4 aste horietan, 24 bisita egin dira euskararen biziberritzea lantzen duten arlo ezberdinetan, Euskal Herriko **lau haizetara**.

Hona ikastaroan bisitatutako entitateen zerrenda:

- Arizmendi ikastola (Leintz bailara)
- Beasaingo udala (euskaltegia eta euskara zerbitzua)
- Bernat Etxepare lizeoa (Baiona)
- Berria (Andoain)
- Bilboko udala (euskara zerbitzua)
- Biriatuko ikastola
- Emun aholkularitza (Arrasate)
- Euskaltzaindia (Bilbo)
- Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (Gasteiz)
- Garaziko gaztetxea
- Gipuzkoako Foru Aldundia (Donostia)
- Goiena (Arrasate)
- Ixa taldea (Donostia)
- Nafarroa Oinez (Lesaka)
- Oihaneder Euskararen Etxea (Gasteiz)
- Zenbat Gara elkarte, Bilboko Kafe Antzokia, Bilbo Hiria irratia eta Gabriel Aresti euskaltegia.



Biriatuko ikastolako haurrak irakasle lanetan.



Markel Olano diputatu nagusiarekin Gipuzkoako Foru Aldundian.



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzako ordezkarien azalpenei adi-adi.

SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK

Helburua: hizkuntza aniztasunaren balioak eta jatorrizko kulturen biziberritzeak gizarte justoagoari egiten dion ekarpena jendartean zabaltzea.

Herritarrei zuzendutako saioak herrietan:

- **Barañain**, urriak 10
“**Hizkuntzak biziberritzen:** *Beltzean mintzo* ikus-entzunezkoaren proiektzioa eta Kitxua eta Nasa Yuwe ordezarrien testigantza”
Parte-hartzaileak: José Quimbo (Kitxua), Diego Yatacue (Nasa Yuwe) eta Maialen Sobrino (Garabide).
- **Beasain**, urriak 11
“**Herri indigenen hizkuntza gutxituei buruzko solasaldia**”
Parte-hartzaileak: Jon Sarasua (Garabide), Leonardo Duran (nahuatla), Milouda El Hankari (Rifeko emakume amaziga) eta Paula Huenumilla (aktibista maputxea).
- **Oiartzun**, urriak 17
ArNASA txiKITXUAK dokumentalaren emanalditik abiatuta solasaldia.
Parte hartzaileak: Adolfo Vitonas (NasaYuwea), José Quimbo (Kitxua) eta Maddi Iñarra (Garabide).
- **Usurbil**, urriak 20
ArNASA txiKITXUAK dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia.
Partehartzaileak: Adolfo Vitonas (Nasa Yuwea), José Quimbo (Kitxua) eta Maddi Iñarra (Garabide).

Hezkuntza arloan eta gainerako entitateetan egindako saioak, hizkuntza gutxituen egoera eta etorkizunari buruzkoak izan dira:

- **Arizmendi ikastola** —4 saio **Arrasaten** eta **Eskoriatzan**—, urriaren 26an.
Partaideak: Leonardo Duran (Nahuatl), Paolina Vercoutere (Kitxua), Maddi Iñarra (Garabide).
- **Francisco de Vitoria ikastetxea-Gasteiz**, urriaren 27an.
Partaideak: Milouda El Hankari (Amazigha), Benjamin Cuellar (Guarania) eta Julen Larrañaga (Garabide).
- **EHU, antropologia** fakultatea-**Donostia**, urriaren 23an.
Partaideak: Paula Huenchumilla (Maputxea), Elisa Chavarrea (Maia Yukateko) eta Julen Larrañaga (Garabide).
- **Fagor taldea,-Leintz bailara**, urriaren 24an.
Partaideak:Paolina Vercoutere, Leo Durán, Diego Yatacue eta Garabideko 3 kide.



Fagor taldeko ordezkariekin egindako bileraren irudia.

Sentsibilizazio ekintzekin amaitu eta **Ikastaldiari bukaera biribila emateko**, Ikastaldi Trinkoan eta hizkuntza lankidetzako zubigintzan Garabideren bueltan ibili diren entitate eta pertsonak batu nahi izan da **“Hamaika amets eta beste bat gehiago”** deitutako ekitaldian. 100 lagun inguru batu dira Aretxabaletako Galartza auzoko dorretxean urriaren 30ean.



Milouda El Hankari –Rif-eko Amazigha–
Batzango alkate Joseba Otondorekin.



Diploma emaileak eta jasotzaileak familia argazkian.

bidaiak 2017

2017an, Ekuador, Guatemala, Mexiko (2), Kolonia, Polonia eta Txilen garatu ditugu hizkuntza-lankidetzak proiektuak. Kasu batzuetan zuzenean egin da Garabidetik eta, beste batzuetan, euskalgintzako eragileen eta hegoko erakundeen arteko zubigintza lanetan aritu gara gure erakundearen lankidetzak filosofiar jarraiki.

Datozen lerrotan bidaide bakoitzean egindako ekimen zein urrats nagusiak aipatzen ditugu. Horiez gain, ugariak dira, teknologia berriak —eta horren berri ez direnak ere— erabiliz egin diren gestioak.

KAXUBIAR KOMUNITATEA (POLONIA)

Kaxubiarrak **Poloniako iparraldeko Pomerania** eskualdean bizi dira eta kaxubieraz mintzatzen dira.

Kaxubiera eslaviar hizkuntza gutxitu bat da, eskualdeko hizkuntza gisa aitortuta dagoen bakarra Polonian. **240.000 lagunek osatzen dute komunitatea** eta horietatik **108.000 kaxubiar hiztunak** dira.

Duela 3 urte hasi zen kaxubiarren eta euskaldunen arteko **harremana**, kaxubiarren aldetik **“Kaxubiarren Batasuna”** izeneko elkarteak izan da entitate nagusia eta euskaldunen aldetik **Baztan Ikastola eta Garabide elkarteak** izan dira lagundu eta aholkatu dietenak.

2017. urtean kaxubieraz irakasteko lehen eskola ireki dute “Naja Szkola” (Gure Eskola) izenekoak, irailaren 2an. Eskola martxan jartzeko ikastolen ereduak izan dute erreferente.

Eskola berriaren irekieraren testuinguruan **“Hizkuntza Biziberritze Estrategiak Hezkuntzan”** izeneko mahai-ingurua antolatu da eta Garabidek parte hartu du bertan Maialen Sobrinoren bidez.



Kaxubierazko lehen eskolako ikasle eta irakasleak.



Maialen Sobrino garabidetarra Kaxubiarrei azalpenak ematen.

KITXUA KOMUNITATEA (EKUADOR)

Urrian José Quimbok (Otavaloko alkateordea) eta Paolina Vercouterek (Imbabura probintziako gobernadorea) parte hartu dute Garabidek antolatutako Ikastaldi Trinkoan.

Azaroaren 20tik abenduaren 12ra Garabideko partaide diren Maialen Sobrino, Julen Larrañaga, Andoni Barreña eta Jon Sarasua **Ekuadorren lan-bidaian izan dira**.

Bidaiaren helburuak hauexek izan dira:

- **Imbabura probintzian kitxuaren aldeko talde eragilea osatzea eta abiaraztea.** Horixe izan zen helburu nagusia.
- Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak III. Aditu Ikastaroan aritutako kitxuen proiektuen jarraipena egitea (lehentasuna Maria Yamberla, Javier Chuquín, Apak Perugachi eta “Sinchi” José Yáñez del Pozo).
- Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak III. Adituaren jarraipenaren barruan aholkularitza eta trebakuntza-ikastaroa gauzatzea. Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko Ikastaldi Trinkoan aritutako kitxuekiko harremanak sendotzea eta euren proiektuaren gauzapena zertan den egiaztatzea (Paolina Vercouture eta José Quimbo).

Helburu nagusiari erantzuteko Esmeraldas hirian **mintegia egin da azaroaren 25 eta 26an** “Seminario sobre el futuro del kichwa en Imbabura” izenburupean.



Esmeraldas-en egindako mintegiaren irudi bat.



Kitxuak eta Garabideko ordezkariak Iluman irratian.

Mintegiaren helburu nagusia:

Imbaburan, kitxua hizkuntza biziberritzeko ikuspegi estrategiko bat diseinatzea.

Helburu zehatzak:


- Biziberritze prozesu bati begira, Imbabura eskualdean kitxuak bizi duen egoera eta dituen aukerak aztertu.
- Imbaburan, 20 urtera begira, kitxua biziberritzeko etorkizuneko bisioa artikulatu.
- Imbabura mailan kitxuaren biziberritzerako egitasmo estrategikoak formulatu.
- Imbaburan kitxuaren biziberritzeko egitasmoa bultzatzeko eta parte hartzen duten pertsonak artikulatzeko antolaketa modua erabaki.

Ondorio nagusia: Imbaburan kitxuaren aldeko ekimenak koordinatzeko helburuarekin “sisary” izeneko entitatea sortzea erabaki da (“sisary”, “loraldia” kitxuaz).

Mintegiaren balorazioa oso ona da eta, aurrera begira, baikorrak izateko zantzuak daude. Urte amaieran mintegi honek emandakoa prozesatzen aritu gara eta **2018an esku artean izango dugun gai izarretako bat izango da.**

MAIA KAQCHIKEL KOMUNITATEA (GUATEMALA)

- 2017an **Ruk'u'x Qatinamit eskola sarearekin dugun harremanari jarraipena eman diogu**. 2016ko abuztuan Iñaki Gonzalezek irakurketa-idazketaren inguruan emandako formazioaren haritik, 105 irakurgai eta irakurgaiok lantzeko ariketak sortu edo itzuli dituzte kaqchikelez, Garabide eta Arrasateko udalaren laguntzaz. Errenteriako udalaren diru-laguntza bati esker, berriz, **kaqchikela irakasteko unitate didaktikoak sortzen hasi dira**, eta 2018ko apirilera LH osoan kaqchikel ikasgaia emateko materiala izango dute.
- Udazkeneko Ikastaldi Trinkoan eskola sareko ordezkari baten partaidetza izan dugu, Victoria Esquit eskola zuzendariaren bitartez. Euskal Herritik bueltan **kaqchikel elkarten arteko saretzearen beharra azpimarratu** du.
- Beste alde batetik, **Joanes Igeregi Garabideko lankideak sei eguneko formazio bana landu du eskoletako irakasleekin**. Formazio hauetan soziolinguistika oinarri batzuk, kaqchikelaren egoera soziolinguistikoa, euskararen biziberritze esperientzia, ikastolen lana, eskola sareak hizkuntza-biziberritzeari egin diezaiokeen ekarpena, eskolaren mugak eta bestelako biziberritze ekimenekin lankidetzatza handitzeko beharra landu dituzte irakasleek. Maia Kaqchikel Unibertsitateko bi egoitzatan ere formazio bera eskaini du Joanesek, irakasle ikasketak egiten ari diren ikasleekin.
- Horrez gain, eta soziolinguistika formazioaren osagarri, **genero tailerrak eraman ditu aurrera Joanes Igeregi, batetik eskola sareko gurasoekin eta, bestetik, eskola komunitateko gurasoekin**. Arlo honetan, honako 4 ardatzen gaineko hausnarketa kritikoa bideratu da saioetan: komunitateko gizon eta emakumeek ekintza ezberdinetan ematen duten denbora, komunitateko baliabideak nork erabiltzen dituen eta nork kontrolatu, familiako erabakiak nork hartzen dituen eta emakume eta gizonen berehalako beharrak eta interes estrategikoen identifikazioa. Bertan bildutako informazioak, batetik, desorekaren identifikazioak eragindako epe motzeko inpaktua dauka komunitatean eta, bestetik, etorkizunean landu beharreko alorrez jabetzeko berebiziko balioa du.



- Orain arte kaqchikel herriarekin izan du harreman iraunkorra Garabidek Guatemalan, baina **beste hizkuntza komunitateetan bidaide izan daitezkeen elkarte eta pertsonak aurkitzeko identifikazio lan bati ekin diogu** urtearen amaieran —kikchi, kiché, mam... komunitateak—, eta ekimen interesgarriak ezagutzeko aukera izan dugu diagnosi soziolinguistiko honetan. Arlo honetan, 2017an goldatutako lurak hurrengo urteetan emango ditu fruituak.

Irakasle finak Joanes Igeregi emandako soziolinguistika ikastaroan.

MAPUTXE KOMUNITATEA (TXILE)

Urte oparoa izan da Maputxe komunitatearekin izan duguna. Ekimen praktikoak gauzatu dira eta, aurrera begira, egitasmo berriak lotzen aritu gara:

- 2017ko martxoan, Mapuzungun hizkuntzaren aldeko dinamikaren baitan antolatutako “Walmapun “Wünen txawün: Pu che ka Zugun” edo **Soziolinguistika 1. jardunaldia egin da**. Bi garabidetar aritu dira hizlari: **Julen Arexolaleiba eta Mari Karmen Garrido**.
- Irailean, berriz, **Marisa Barrena eta Txema Abarrategi kideak izan ditugu Walmapun** eta 2 izan dira beraien jardun nagusiak: batetik, Marisak hango irakasleei emandako **formazioa** (2 talde: helduekin ari direnak eta haurrekin aritzeko helburu dutenak), bestetik, “Congreso de la Cultura y las Artes” delakoan Txema Abarrategik euskararen esperientziaz ponentzia aurkeztu du.
- Urrian Paula Huenumilla aktibista maputxeak parte hartu du Garabidek antolatutako Ikastaldi Trinkoan.



Kimelfe Mapuzugun ñi kimeltuwün
mageleymünmew:

Wünen txawün: Pu che ka Zugun.
1ª Jornada de Sociolingüística

Fierne antü, 17 konle Marsu küyen 2017 tripantu mew

Pepifemayñ! 10:00 puliwen - 6:00 nagantü
Chew: Ruka Campus Norte UCT

Ngütxamkayaygu:
Julen Arexolaleiba Biteri
M. Carmen Garrido
Kimeltuchefe Heuskal Herria



Tamün konküeam: mapuzuguletuañ@gmail.com
Equipo Mapuzuguletuañ · FEMA E · Agrupación Mapuche UCT · Garabide.

Soziolinguistika jardunaldia iragartzeko ateratako kartela.

2018rako lotu ditugun jardunak:

- **Zornotzako Barnetegiarekin harremanak** landu dira eta 2018rako elkartrukea egiteko aurrelanak egin dira mapuanguletuañ elkarteak mapuzugun hizkuntza ikasteko antolatzen dituen barnetegiaren dinamika indartzeko.
- Mondragon Unibertsitateko **HUHEZI fakultateko 3 ikaslek Walmapun egingo dute GBLa** (Grado Bukaerako Lana), mapuzungun hizkuntza biziberritzeari buruzko ikus-entzunezko bat egingo dute.

NAHUATL KOMUNITATEA (MEXIKO)

Ekainean, Garabideko kide den Jon Sarasuak astebeteko lan bisita egin du. Bi izan dira egiteko nagusiak:

- Cuetzalanen, 3 egunez, egindako **“Hedabideak hizkuntza biziberritzeko prozesuan”** izeneko tailerra. Bertan Nahuatl komunitateko partaideez gain Yucatango maiako komunitateko kideak izan dira.
- Nahuatl komunitateko **ordezkariekin hainbat bilera egin dira, hizkuntza kontuetan jarraitu beharreko estrategiei buruz**. Dinamika horretatik **Tosepan kooperatiba taldean hizkuntza erabilera plana** egiteko aukera landu da.

2017ko udazkenean harremanak izan dira Tosepan, Garabide eta Emun aholkularitzaren artean, tartean irailean egin den aurrez aurreko bilera, gaia bideratzeko.

Egitasmoarekin aurrera egitea erabaki da eta **2018ko 2. hiruhilabetekoan hizkuntza Plana egitea erabakita dago**.

Maiatza eta ekainean, **HUHEZIKO 3 ikaslek karrera amaierako proiektua bertan egin dute**. Landu dituzten ekimenak 3 hauek izan dira:

- Tosepan-en komunikaziorako teknologien inguruko formazioa ematea.
- Bideoklip musikalak egitea nahualteraz.
- “Argia iluntasunean” 25 minutuko dokumentala ekoiztea. Dokumentala hizkuntza biziberritzeko ekintzei buruzkoa da.

Urrian Tosepaneko kide diren Lizbeth Sanchezek eta Leonardo Duránek parte hartu dute Garabidek antolatutako Ikastaldi Trinkoan.



Jon Sarasua Tosepan kooperatiban egindako formazioko diploma banaketan.

NASA KOMUNITATEA (KOLONBIA)

- Irailaren 1etik 12ra, Unesco Katedrak eta Garabidek aurrera daramaten egitasmoan urrats praktikoak egiteko, **Ane Ortega eta Arkaitz Zarraga Kolonbian izan dira**. Bidaiaaren helburu nagusia honakoa izan da: “Nasa Yuwe Hari”ko sustatzaileei begirako trebakuntza ikastaro bat egitea helduentzako Nasa Yuweren irakaskuntzarako metodologia lantzeko —bereziki A1 maila—. Ikastaroaren balorazioa oso positiboa da, jadanik **A1 profilaren 9 gai diseinatuta daude eta horietatik 5 guztiz garatuta**.

Dinamika horren baitan, beheko argazkian ikus daitezkeen bezala, **hainbat material didaktiko publikatu** da.



Nasek argitaratutako material didaktikoaren irudia.

- Urrian 2 nasa, Diego Fernando Yatacue eta Adolfo Vitonas parte hartu dute Garabidek antolatutako Ikastaldi Trinkan.
- Urriaren amaieran **2 autoritate nasa —Saray Vxtnus eta Leydy Pavi— Euskal Herrian izan dira euskararen biziberritze prozesuaren berri** zuzenean jasotzeko. Egonaldia **Durango** egin dute eta, besteak beste, entitate hauek bisitatu dituzte: Bizkaiko Foru Aldundia, Durangoko udala, Kurutzia eta Ibaizabal ikastolak, Zabalarra herri eskola, Barbaro, Durangaldeko Mankomunitatea.
- Eta, azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiko ohiko diru-laguntzen deialdian lortu den finantziazioarekin, 2018. urtean Caucan egingo den **“Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Diplomatura Nasa Komunitatean Aplikatuta”** prestaketa lanak egin dira.

YUKATANGO MAIA KOMUNITATEA (MEXIKO)

- Ekainean Cuetzalanen egindako tailerrean 6 maia yucatekok parte hartu dute.
- Bertan egindako ekimen nagusia **“Aditu Txikia”** izenez bataiatu den **2 eguneko tailerra izan da**. 15 pertsonak parte hartu dute (Maia biziberritzeko entitateetako pertsonak, irakaskuntza publikoko irakasleak, irakaskuntza publikoko hizkuntza plangintza arduraduna...).
- Hizkuntza Biziberritzeko proiektu baten beharraz aritu gara tailerrean. Bertan ateratako ondorio nagusia hau izan da: **talde egonkor bat sortzea**, prozesu horren gune sinboliko moduan funtzionatzeko. Prozesu hori nahi baino geldoago doa.
- Magisteritza Eskolan, maiaz edo era bilinguean irakasteko formatzen duten eskolan, hitzaldia eskaini du Garabidek, “Hizkuntzen Biziberritzearen inguruko motibazio hitzaldia”, hain zuzen ere.
- 2017an 2016ko Aditu amaierarako 2 proiekturen jarraipena egin da:
 - Isaac Carrillo “Maiaz alfabetatzea eta erabilera plana Peto herrian”.
 - Jose Angel Koyok “Maia hizkuntzaren grabazio zentro bat”.
- Maria Elisa Chavarrea ekintzaileak parte hartu du Garabidek antolatutako Ikastaldi Trinkan.
- 2018an Yukatanen “Aditu Ikastaroa” egiteko urratsak egin dira.



2017ko azaroan joan zaigu Isaac Carrillo laguna. Gure bihotzetan zaude Isaac!

GARABIDEren sendotzea

GARABIDEren egonkortze eta sendotzeari dagokionez hainbat urrats egin da 2017. urtean eta **modu oso positiboan baloratzen dugu atal honetan izandako jarduna.**

Babesle ekonomikoen kopurua handitu egin da 2017. urtean –txostenaren hurrengo puntuan gai honi buruzko informazio zehatza– eta honek ahalbidetu du, besteak beste, hainbat urrats egin ahal izatea GARABIDE sendotzeari begira:



GARABIDEko lan talde teknikoa.

- **Lantalde teknikoa indartu egin da.** Urte sasoiaren arabera, 5-6 pertsona aritu dira lanean bulegoan. Eta honek ahalbidetu du GARABIDEren gestioan –diru-kontuen– kudeaketan, komunikazioan eta egitasmo berrietan urratsak egitea.

- **Zuzendaritzaren funtzionamendua optimizatu** da, izan ere 2017. urteko bigarren seihilekoan berregituratu baitu eta egindako jarduna modu positiboan baloratu da.

- **Kontseilu Nagusia eta lan-taldeak:**

Eguneroko lanek ikuspegi estrategikotik desbideratu izan gaituzte maiz eta, besteak beste, hori gainditze aldera abiarazi ditugu Kontseilu Nagusia eta lan-taldeak:

- **Kontseilu Nagusia:** 2017an sortu den organoa 15 kidek osatzen dute –euskaingintzan edota GARABIDEren dinamikan erreferentzialak diren pertsonen osaturik– lehen bilera egin du eta bere helburu nagusia honakoa da: **GARABIDEren ikuspegi estrategikoaz arduratzea**, urtean 3-4 aldiz elkarturik.

- **Lan-taldeak:** Lan-taldeen dinamika sendotzeko erabakia hartu da. 4 lan-talde jarri dira indarrean:

- ◊ **Ikastaroak eta aholkularitza**

- ◊ **Komunikazioa**

- ◊ **Ikerketa eta nazioartea**

- ◊ **Euskal Herriko ekintzak**

- **Euskaingintzako erakundeekin elkarlana bilatu da.** Horren erakusgarri da Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeak antolatutako **“Hitz Adina Mintzo”** hizkuntza gutxituak ezagutzera emateko hitzaldi zikloan Garabide laguntzaile moduan aritu izana.

Aipagarria da GARABIDEko **bazkideek** egiten duten ekarpena, euren lan boluntarioa eskainiz edota ekarpen ekonomikoa eginez. 2017. urtean ez da gai hau sakonki landu eta 2018. urteko helburuen artean dago bazkideen gaiari heltzea. **Lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu bazkideei eskerrik zintzoena emateko.**

komunikabideetan oihartzuna

Sarreran azpimarratu dugun bezala, **ahalegin berezia egin dugu** GARABIDEren jardunaren inguruko komunikazioa areagotzeko eta ahalegin horrek, datozen lerrotan ikus daitekeen bezala, **emaitza neurgarriak eman ditu**.

GARABIDEren komunikazio-bide propioak

- **www.garabide.eus** webgunea:
 - **“Hizkuntza komunitateak”** izeneko atala jarri dugu abian, bertan GARABIDErekin harremana duten hizkuntza komunitateen fitxa bisuala aurkezteko.
 - Albisteak atalean GARABIDErekin harremana duten hizkuntza komunitate ezberdinetako pertsonak sortzen dituzte artikuluak euren jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz, zein gazteleraz ere argitaratzen dira webgunean.
 - Ikastaldi Trinkoaren asteroko dinamikaren kronika zehatza jaso da euskarazko eta gaztelaniarazko bertsioetan idatziz eta bideo formatuan ere, guztia webgunean eskuragarri dago.



The screenshot shows the GARABIDE website interface. At the top, there is a navigation menu with 'Hasiera', 'Garabide', 'Albisteak', 'Proiektuak', 'Hizkuntza komunitateak', 'Multimedia', and 'Blogak'. Social media icons for email, RSS, YouTube, Facebook, and Twitter are also present. The main content area features a large photo of a group of people in a park, with the caption 'IKASTALDI TRINKOAREN JARRAIPEN BLOGa, Itziar Garmen eskutik'. Below the photo, there are two article teasers: 'AZKEN ALBISTEAK' with the title 'Elkarlan hitzarmena Aurten Bai fundazioarekin' and date '2018/02/08', and 'MUNDUAN MINTZO' with the title '"Min eta itxaropenen kontrabandoa" - Jon Sarasua Radio Euskadin' and source 'EITB'.

– Sarrera kopuruak modu nabarmenean egin du gora. Hona hemen hainbat xehetasun:

◊ Webgunera izandako **bisita kopurua 21.632** izan da aurten, aurreko urtean baino %20,2 gehiago.

◊ Hilabeteka datuei erreparatuta urrian, Ikastaldi garaian, izan ditu bisita gehien, guztira 4.219 eta epe horretatik kanpo hilabeteko bisita kopurua 1.583 da batz bestean; aurreko urtearekin alderatuta %17,4 egin du gora hilabetean jasotako bisita kopuruaren batz bestekoak.

◊ Albisteen atalak, bideoenak eta Allartean blogak jaso dituzte bisita gehien.

◊ Bisiten jatorriari begira, %18 Arrasatetik egin dira, %12 Donostiatik, %11 Bilbotik, %8 Gasteiztik eta %4 Iruñetik. Astelehenetan eta astearteetan jaso ditugu bisita gehien, goizetan (9:00-12:00 tartean).

• **“Ikastaldi Trinkoaren jarraipen bloga”**ren bidez ikastaro honen jarraipena egin du Itziar Garin Garabideko praktikariak.

• **Sare sozialak:** Twitter eta Facebooken egindako argitalpen kopurua nabarmen hazi da eta, horrekin batera, %10 egin du gora webgunera sare sozialen bidez heltzen den bisitarien kopuruak. Bietan erabiliena Twitter da, pasa den urtean bezala, baina Facebooken erabilerak ere gora egin du. Halaber, nabarmentzekoa da 2017 urtean migrazioa egin dugula Facebookeko perfiletik orrialdera.

• **Ikastaldiaren ikus-entzunezkoak** (Nekane Muñozek eginak): Aurretik aipatutako astez asteko laburpen pilulez gain, honako ikus-entzunezko hauek ekoitzi dira:

– “Garabide: zer da Ikastaldi Trinkoa?” Formazioaren aurkezpen bideoa (Webgunean eta gure Youtube kontuan zintzilikatuta).

– Hizkuntza komunitate bakoitzaren aurkezpen bideoak (Webgunean eta gure Youtube kontuan zintzilikatuta).

– “Hamaika amets eta beste bat gehiago itxiera ekitaldia” (Webgunean eta gure Youtube kontuan zintzilikatuta).

• **“ArNASA txiKITXUAK” ikus-entzunezkoaren estreinaldia** egin dugu maiatzaren 26an Bermeon eta 2017ko bigarren seihilekoan Kolonbiako Caucan, Oiartzunen eta Usurbilen egindako sentsibilizazio ekimenetan proiektatu da.

• **Buletina:** 3 argitaratu dira (martxoa, uztaila eta abenduan) eta e-mailez zabaldu zaie Garabideko bazkideei, harpidedunei eta pertsona zein entitate laguntzaileei.

KANPO KOMUNIKABIDEAK

Honakoa da 2017. urtean komunikabide mota ezberdinetan -egunkariak, aldizkariak, telebistak, irratiak, komunikabide digitalak eta erakundeen web guneak- jaso dugun erregisttro kopurua: **59 komunikabidetan guztira 95 agerpen jaso ditugu (ikus idatzizko agerpen guztiak jasotzen dituen eranskina).**



Ekuadorko UTV telebistan Andoni Barreñari elkarrizketa eginen.

• Egunkariak: 17 agerpen

- Deia (2)
- Berria (3)
- Goierriko Hitza
- El Diario Vasco (5)
- Noticias de Gipuzkoa (3)
- Gara
- El Correo
- El Comercio (Ekuador)

• Aldizkariak: 8 agerpen

- Goienkaria (2)
- Goiberri
- Beasaindik
- Argia (3)
- Revista Pueblos

• Telebistak: 6 agerpen

- Goiena telebista (2)
- Goierri irrati telebista
- Xaloa telebista
- Sarance Vision - Ekuador
- UTV Canal Universitario - Ekuador

Trukea ere bada biziberritzea



Herri indigenen hizkuntza gutxituei buruzko solasaldia bihar Igartzan

En apoyo de las lenguas minoritarias

Una docena de líderes indígenas fue recibida ayer en el Ayuntamiento

EUSKARAREN BIZIBERRITZE HERRENA, BERTZE KOMUNITATEEN INSPIRAZIO

La importancia de las lenguas minoritarias

Garabide ofrece formación en lenguas minorizadas

Esta asociación dirige el programa en el que forman parte doce representantes de pueblos indígenas

Presentación del 'Curso intensivo en dirección y revitalización de la lengua'

Clausura del curso de dirección de revitalización de la lengua, de Garabide

«Aunque la situación del euskera haya mejorado, no olviden los malos tiempos»

Una delegación de comunidades lingüísticas minorizadas visitan la Diputación

Cita internacional para revitalizar los idiomas milenarios

Hainbat komunitetako hamabi kideek ikastaroa jasoko dute

Garabidek eskainitako hizkuntza biziberritzeko gidaritzari buruzko ikastaldi trinko bat izango da

ZUEK EUSKARAZ, NIK ZERGATIK EZ?

Euskara hizkuntza gutxituendako ispilu

«Ez diogu kolonizatu izateari utziko hezkuntza sistema irauli artean»

APOYO A LAS LENGUAS MINORIZADAS



Zortzi hizkuntza gutxiagotuetaiko kideekin 'Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari Buruzko Ikastaldi Trinko' hasi dute Aretxabaletan



"Beltzean Mintzo" dokumentalaren proiektua | Barakaldoan liburutegia



Garabide Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko ikastaldian diploma banaketa egin dute

• Irratiak: 25 agerpen

- Bilbo Hiria irrattia
- Radio Euskadi
- Info-7 irrattia (10)
- Oiartzun irrattia.
- Segura irrattia
- Euskadi irrattia
- Hala Bedi irrattia (3)
- Radio Armonia - Ekuador
- Radio Alborada - Ekuador
- Radio Máxima - Ekuador
- Radio Los Lagos - Ekuador
- Radio La Premier - Ekuador
- Radio Activa - Ekuador
- Radio Municipal Ibarra - Ekuador

Garabide, hizkuntza gutxituen berreskurapenean topaleku

Udalaren tartea: Garabide

Aran bailarako gonbidatuak eta hizkuntza gutxituetako ordezkariak, Lesakan

Milouda El Hankari El Bouzidi (socióloga): "Hay una diversidad y Marruecos tiene que aceptarla"

"HIZKUNTZA GUTXITUEN HAMABI KOMUNITATEREN ETORKIZUNERAKO AMETSAK BILDU DITUGU"

• Komunikabide digitalak: 17 agerpen

- Durangon
- Anbotó (4)
- Goiena (2)
- Mondraberrri (2)
- Plazaberri (2)
- Oiartzuarrak
- Mugalari aldizkaria
- Lan ta lan (Emun)
- La hora (Ekuador)
- Últimas noticias (Ekuador)
- Imbabura en línea (Ekuador)

Hizkuntza gutxiagotuen ordezkariak harrera egin die Mondraberrri.eus atariak

Revitalización de las lenguas

Ordezkari indigenak Copreci kooperatiban

Amerikako hizkuntza indigenei buruzko dokumentala eta solasaldia Oiartzunen

José Quimbo: 'sí es posible fortalecer la lengua kichwa'

Iniciativa a favor del kichwa

Hizkuntza gutxituak indartzeko 12 lagunek Garabiderek in ikasi dute

Autoridades impulsan revitalización de la lengua kichwa

• Erakundeen webguneak: 22 agerpen

- Barañaingo udala
- Bilboko Udaleko zinegotzia, Alba Faltuarte Twitter
- Soziolinguistika klusterra
- AEK - Twitter
- Beasaingo udala
- Azkue Fundazioa
- Emun - Twitter
- Garaziko Gaztetxea - Facebook
- Beasaingo udal euskaltegia:
- Copreci Koop.E
- Patxi Baztarrikaren bloga
- Arizmendi Ikastola (2)
- Kurutziaga ikastola (2)
- Barañaingo udala

"Hizkuntzak biziberritzen" jardunaldia (Gaztelaniaz)

HIZKUNTZA GUTXITUEN INDIGENEI BURUZKO GIDARITZARI BURUZKO IKASTALDI TRINKOA



"...AEKren moduko zerbait egin genezake..."
Biba zuek! berria.eus/paperekoa/1830 ...
@berria eta @garabide bidez #euskera
#euskara

Hizkuntza gutxiagotuen dituzten herrialdeetako ordezkariak harrera egingo die Udalak

Garabidek antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari Buruzko Ikastaldi Trinkoa

Garabide: Curso de liderazgo en revitalización lingüística

Emun Aholkulariak @emun_talde

@garabide tik gurera etorri dira hainbat hizkuntza komunitatetatik lan munduaz ikastera. Gaurkoan ere guztiok ikasi dugu!

BATXILERGOKOEN LEHENENGO PROIEKTUA ABIAN

COPRECİK GARABIDE HARTU DU

Alba Faltuarte @alfalito

Eskerrik asko @garabide hizkuntza gutxituen 12 liderrekin izateko aukera emateagatik! Bisita aberasgarria, #hizkuntzalankidetz helburu!



Bestalde, aurreko urteetan bezala, **Info7 irrati Gureaz Blai saioan**, hilabeteroko pilulekin parte hartzen jarraitu dugu hilabetearen behin. Garabiden uste dugu formatua interesgarria dela eta horregatik beste irrati batean proposamena egitea aztertzen ari gara.

balantze ekonomikoa

SARRERAK

Diru-laguntza lehiakorrak	192.921,75 €
Elkarlan hitzarmenak, bazkideak eta produktu eta zerbitzuen salmenta	81.283,78 €
GUZTIRA.....	274.205,53 €

GASTUAK

Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak Aditua III	99.417,09 €
Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari Buruzko Ikastaldi Trinkoa I.....	95.221,00 €
Bidaide programa: hizkuntz komunitateekiko lankidetzako proiektuak.....	20.385,12 €
Administrazioa.....	11.186,09 €
Koordinazioa.....	27.777,72 €
Zabalkundea.....	22.147,18 €
GUZTIRA.....	276.134,20 €

babesleak eta laguntzaileak

Azken urteotako lan instituzionalari esker, udal, enpresa eta erakunde desberdinen babesa lortu du Garabidek. Beharrezko sostengu ekonomikoaz gain, babes instituzionala eta herrien arteko esperientzia elkartrukerako giharra eskaintzen digu sare honek.

2017an **ahalegin handiena eremu instituzionalean** egin da eta emaitzak eman ditu, **Barañain, Beasain** eta **Berako** udala batu dira gure udaletxe sarera eta **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** ohiko diru-laguntzen deialdian lortu da Kolonbiako Caucañ “Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Diplomatura Nasa Komunitatean Aplikatuta” ikastaroa egin ahal izateko finantziazioa.

GARABIDEk, 2017. urtean **23 entitate babesle** izan ditu.

Entitate laguntzaileei dagokionez, berriz, **38 izan dira** GARABIDERI eta bere ekimenei laguntza eman dioten era guztietako entitateak.

Sare hau estrategiko bilakatu da Garabiderentzat bai finantzaziorako eta baita Euskal Herrira begirako sentsibilizazio ekintzetarako ere.

Hona hemen 2017ko Garabideren **erakunde babesleen** —ekarpen ekonomikoa egiten dutenak— eta **erakunde laguntzaileen** —diruz bestelako ekarpena egiten dutenak— zerrenda. **Bihoakie guztiei gure esker ona.**



Beasaingo alkate Aitor Aldasoro harrera egiten.



Gasteizko Oihaneder euskararen etxera egindako bisita.

ERAKUNDE BABESLEAK



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



ARAMAIO UDALA
ARABA



Aretxabaletako
Udala



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Ayuntamiento de
BARAÑÁIN
BARAÑÁINgo Udala



Baztango Udala



Beasaingo Udala



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



Errenteriako Udala



eskoriatza
udala



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



Gipuzkoako
Foru Aldundia



OIARTZUNGO
UDALA



ORIOKO UDALA



Otxandioko
Udala

TOLOSAKO UDALA



Usurbilgo Udala

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



garabide kultur elkartea

Jose Arana 13
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

943 25 03 97

688 63 24 33

garabide@garabide.eus

www.garabide.eus



/garabide.eus



@garabide



/garabide